

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO GOBERNU SALAREN 2026KO MAIATZAREN 22AN BATZORDEAREN HARTUTAKO ERABAKIAK

BERTARATUAK:

Presidente jauna

Ignacio José Subijana Zunzunegui jauna

Jaun/andreak

María Josefa Barbarín Urquiaga andrea

Jose Luis Nuñez Corral jauna

Aner Uriarte Codón jauna

Ignacio Sánchez Morán jauna

Gobernu-idazkari andrea

Blanca Rosa Barbero Blanco andrea

LEHENENGOA – AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA.

Bileraren akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

BIGARRENA.– AURREKO BILERAKO ERABAKIAK BETEARAZTEA.

Salari aurreko bileran hartutako erabakiak betetzen direla jakinarazten zaio.

ERABAKIAK

1. Magistratuak eta epaileak

1.1. IRUNGO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO ETA INSTRUKZIOKO ATALEKO EPAILEEK 2026KO MAIATZAREN 6AN EGINDAKO BATZARRA.

Salari 2026ko maiatzaren 6an egindako Irungo Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko Batzarraren Aktaren berri eman zaio, eta honako hau dio, hitzez hitz:

"Egun horretan, Epaileen Batzarra egin zen, Irungo Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko epaileak bertan zirela, eta Auzialdi Auzitegiko presidentea, Cristina Mere Bermejo, izan zen bertan; Batzarreko idazkari moduan, Leire Muñoz De la Vega andrea izan zen.

Saioa 13:00etan hasi da. GAI-ZERRENDAN EZARRITAKO GAIAK:

1.- OPOR- PLANA ONARTZEA: (...)

2.- AUZIALDI AUZITEGIKO PRESIDENTE ANDREAK KONTU-EMATEA.

Auzialdi Auzitegiko presidente andreak 2026ko apirilaren 29an Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako Auzialdi auzitegietak presidentek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidente andreak Auzialdi auzitegiak ezarri eta garatu ondoren beren barruti judizialean hauteman diren arazoei buruz elkarrekin egindako bileran aztertutako gaien eta bertaratzeen berri eman du.

3.- SINATZEKO ARAUAK.

Aho batez onartu da SECOTRAMEko zigor arloko ataleko funtzionarioei jarraibide batzuk zuzentzea, eta irizpideak bateratzea Auzialdi Auzitegiko epaileek ohiko ordezen kasuetan zigor-arloan emandako ebazpenei dagokienez.

Dokumentu bat egingo da eta posta elektronikoz bidaliko da SECOTRAMEko letradu zuzendariaren bidez.

4.- FISKALTZAREKIKO KOMUNIKAZIOA.

Auzialdi Auzitegiko presidente andreak jakinarazi du fiskalburuarekin – Mercedes Bautistarekin – harremanetan jarriko dela, Auzialdi Auzitegiko plaza bakoitzean izendatutako fiskalei dagokienez gertatu diren aldaketen berri eman dezan. Hori guztia, agendak fiskaltzarekin koordinatzea erraztu ahal izateko.

Batzarra 14:30ean amaitu da.

Bertaratutakoek ez dute beste gairik proposatu, eta amaitutzat eman da Batzar hau. Horri buruzko akta hau egin da, eta bertaratutakoek nirekin sinatu dute, idazkari naizen aldetik. Fede ematen dut. "

Gai-zerrendako lehenengo puntuari dagokionez (Opor-Plana), Salak erabaki du onartua izateko 2026-05-29rako aurreikusitako Osoko Bilkurara bidaltzea.

Gai-zerrendako bigarren puntuari dagokionez ("Auzialdi Auzitegiko presidente andreak kontu ematea"), Sala jakitun geratu da.

Gai-zerrendako hirugarren puntuari dagokionez («Sinatzeko arauak»), Salak Epaileen Batzarrean adostutako praktikak bateratzearen berri izan du, BJLOren 169.1, 170.1 eta 264.4 artikuluetan eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuraren ekainaren 23ko 1/2025 Jarraibidearen 1.4 artikuluan xedatutakoaren arabera (Auzialdi Auzitegien koordinazioari eta funtzionamenduari buruzkoa da jarraibide hori).

Gai-zerrendako laugarren puntuari dagokionez (Fiskaltzarekiko komunikazioa), Salak horren berri izan du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritz, akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidaltzea erabaki da, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

1.2. DURANGOKO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO ETA INSTRUKZIOKO ATALEKO EPAILEEK 2026KO MAIATZAREN 12AN EGINDAKO BATZARRA.

Salari Durangoko Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko Epaileen Batzarraren 2026ko maiatzaren 12ko aktaren berri eman zaio, eta honako hau dio, hitzez hitz:

"2026ko maiatzaren 12an, 13:30ean, Epaileen Batzarrean bilduta, Laura Yuste Fernández, 1 zk.ko Plazaren magistratu titularra; Laura Valenciano Menéndez, 2 zk.ko Plazaren magistratu titularra; Doha Claudia Nuñez Andrés, 3 zk.ko Plazaren epaile titularra, idazkari gisa diharduena; eta Susana Iñiguez, Durangoko Auzialdi Auzitegiko 4 zk.ko Plazaren ordezkoko epailea.

1. Opor-plana onartzea. (...)

2.- Gai-zerrendan sartu da, Durangoko Auzialdi Auzitegiko epaile guztien erabakiz, eta aho batez onartu da, Izapidetze Zerbitzu Orokorreko zuzendariak agindu egokiak ematea, izendatutako funtzionarioak, bilera egin baino bi egun lehenago, espediente judizialak presta ditzan eta dagokion epaileari bere bulegoan eman diezazkion, funtzionario eskudunak egin beharreko kontu-ematearen kalterik gabe.

3.- Gai-zerrendan sartu da, Durangoko Auzialdi Auzitegiko epaile guztien erabakiz, eta aho batez onartu da, epaile bakoitzak funtzionarioari edo Justizia Administrazioaren letradu eskudunari behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea zer egunetan egongo den baimena, lizentzia, oporrak edo guardia uztekoa, prozeduren izapidetzea antolatzeak, sinaduraren ondoreetarako».

Gai-zerrendako lehenengo puntuari dagokionez (Opor-Plana), Salak erabaki du 2026-05-29rako aurreikusitako Osoko Bilkuraren esku uztea gaia.

Gai-zerrendako bigarren eta hirugarren puntuei dagokienez, Salak Epaileen Batzarrean adostutako praktiken bateratzearen berri izan du, BJLOren 169.1, 170.1 eta 264.4 artikuluetan eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuraren ekainaren 23ko 1/2025 Jarraibidearen 1.4 artikuluan – Auzialdi auzitegien koordinazioari eta funtzionamenduari buruzkoa – xedatutakoaren arabera.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritz, akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidaltzea erabaki da, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

1.3. BILBOKO AUZIALDI AUZITEGIAREN FAMILIA, HAUR ETA GAITASUN ATALEKO EPAILEEN BATZARRA, 2026KO MAIATZAREN 15EAN EGINA.

Bilboko Auzialdi Auzitegiko Familia, Haur eta Gaitasun Ataleko Epaileen Batzarrak 2026ko maiatzaren 15ean egindako Aktaren berri eman zaio Salari. Honako hau dio, hitzez hitz:

"Egun horretan Epaileen Batzarra egin zen, eta bertan izan ziren plaza judizialeko magistratuak: 1 zk.ko Plazako magistratu Francisco Javier Osa Fernández, 2 zk.ko. Plazako magistratu Maria Eugenia Matía Ortiz; eta 3 zk.ko Plazako magistratu Cristina Balboa Dávila; Auzialdi Auzitegiko presidente Aner Uriarte Codón jauna, bertaratu zen ere, eta Batzarreko idazkari moduan, Plaza Judizialeko 3 zk.ko magistratua izan zen.

OPORREI buruzko gai-zerrendako lehen puntuari dagokionez (...)

Gai-zerrendako bigarren puntuari dagokionez, BJLOren 86.5.artikuluari dagokionez, BANAKETA-ARAUAK.

Batzarrak aho batez erabaki du familia-arloko eskumen berriak, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 86.5 artikuluan jasota daudenak, urtarrilaren 2ko 1/2025 Lege Organikoak egindako erreformaren ondoren. ausaz banatzea 1., 2. eta 4.zk. ko plaza judizialen artean.

Batzarra kezkatuta dago Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskaritza Zerbitzuak egindako proposamenarekin, hau da, Bilboko Familia, Haur eta Gaitasun Atalean gaien araberrako espezialitate guztiak kentzea, plaza guztiak gai guztiez bereizketarik gabe arduratu daitezzen. Proposamen hori anomalia izango litzateke Bilboko barruti judizialarentzat, hainbat hamarkadatan Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak biztanleria handietan gaitasunaren arloko espezializazioari buruz jarraitu duen politikatik aldentzen baita, tratamendu espezializatua eta arlo horretako irizpide uniformeak behar izateagatik.

1/2025 Lege Organikoak organo judizialen espezializazioaren alde egiten du, eta, horregatik, kontraesan bat litzateke lege horren aplikazioa, hain zuzen ere, Bilbon duela hamarkada batzuetatik dauden espezialitateak ezabatzean datzala. Bilboko Atalean espezialitate oro kentzeak eta gaitasun arloko gaia lau plazen artean sakabanatzeak hain sentikorra den gai honetan irizpideak desberdinak izateko arrisku nabarmena ekarriko luke, hain zuzen ere esku hartzen duten profesional guztien koordinazioa beharrezkoa izango litzatekeen toki batean: epaileak, justizia administrazioko letratuak, bulego judiziala, guardiako epaitegiak, ospitaleak, osasun-zentroak, etab.

Bestalde, Bilboko Lehen Auzialdiko Epaileen Batzarrak 2025eko azaroaren 3an egindako gai-zerrendako lehen puntuan adostutakoa azpimarratzen da, 1, 2 eta 4 zk. ko Plazek 3 zk.ko Plazaren gehiegizko lan-karga hartzeak haurren arloko prozesuetarako ekarriko lukeen atzerapenari dagokionez. Orain arte, lan-karga hori kanpoko errefortzuarekin landu da, eta haurrek eta nerabeek ez dute desgaitasuna duten pertsonen baino arreta eskasagoa merezi.

ESKAERA ETA GALDERAK: Batzarrak erabaki du Plaza judizial bakoitzeko gaien sarrerari buruzko estatistikak berriro jasotzeko eskatzea. "

Gai-zerrendako lehenengo puntuari dagokionez (Opor-Plana), Salak erabaki du 2026-05-29rako aurreikusitako Osoko Bilkuraren onarpena eskatzea.

Gai-zerrendako bigarren puntuari dagokionez, Salak eztabaidagai jarri du banaketa-araua aldatzeko proposamena, BJLOren 86.5 artikuluan barne dauden gaien arabera.

Salak gehiengoz erabaki du Epaileen Batzarrari helaraztea posible dela banaketa asimetrikoa adostea Bilboko Auzialdi Auzitegiko Familia, Haur eta Gaitasun Ataleko plazen artean, horietako baten lan-karga espezifikoak kontuan hartuta, eta ezin dela horietako plaza bat salbuetsi Botere Judizialaren Lege Organikoaren 86.5 artikulua jasotako gaien banaketatik, zeinak gaur egun indarrean dauden espezializazio-akordio espezifikoek barne hartzen ez baitituzte. Era berean, Batzarrari jakinarazi zaio, behin Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Gobernu Sala honek maiatzaren 8ko bilkuran espezializazioa bertan behera uzteko egindako eskaerari buruz iritzia eman ondoren, 3 zk.ko plazarako laguntza-neurri espezifiko bat proposa daitekeela, azken urteetan plaza horrek izan duen sarrera-gainkargagatik metatutako gaiak ebazteko.

Aner Uriarte jaunak adierazi nahi du bere ustez egokia dela 86.5 artikuluan jasotako gaiak banatzeko arauaren aldaketa onartzea, Epaileen Batzarrean erabakitakoa, bertan erabakitako baldintzetan.

Eskaera eta galderei dagokienez, Sala Epaileen Batzarrak egindako gogoeten jakinaren gainean dago.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritz, akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidaltzea erabaki da, jakinaren gainean egon dadin eta legezotasuna kontrola dezan.

1.4. BARAKALDOKO AUZIALDI AUZITEGIKO EPAILEEK 2026KO MAIATZAREN 15EAN EGINDAKO BATZARRA.

Salari Barakaldoko Auzialdi Auzitegiko Epaileen Batzarrak 2026ko maiatzaren 15ean egindako Aktaren berri eman zaio, eta honako hau dio, hitzez hitz:

"09:00etan eratu da Barakaldoko Barruti Judizialeko Epaileen Batzarra, Barakaldoko Auzialdi Auzitegiko Instrukzioko Atalaren titularra den Barakaldoko Auzialdi Auzitegiko magistratu-presidentea buru dela. 1.zk.ko Plaza: Sylvia Martín Blanco andrea, eta idazkari gisa; Atal eta Plaza hauetako titullarrak bertaratu dira:

BARAKALDOKO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO ATALA:

Guillermo Martínez Sellers jauna.

Ana Rosa Rincón Varona andrea: botoa Julia Sauri Martín andreari eskuordetu dio.

Jesús Manuel Fernández Fernández jauna.

BARAKALDOKO AUZIALDI AUZITEGIKO FAMILIA, HAUR ETA GAITASUN ATALA:

Julia Sauri Martín andrea

Javier García García jauna

BARAKALDOKO AUZIALDI AUZITEGIKO INSTRUKZIOKO ATALA:

Sylvia Martín Blanco andrea

Beatriz Rodríguez Sanz andrea

Alicia Alonso Cuesta andrea: botoa eskuordetzan eman dio Sylvia Martín Blanco andreari

Sara Carrión de Castro andrea

BARAKALDOKO AUZIALDI AUZITEGIKO EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ATALA:

Blanca Llana Ibáñez andrea: botoa eskuordetzan eman dio Sylvia Martín Blanco andreari.

BARAKALDOKO AUZIALDI AUZITEGIKO ZIGOR-ARLOKO ATALA:

Patricia García Díez andrea.

Rafael Angel Sicilia Murillo jauna: botoa Patricia García Díez andreari eskuordetu dio.

Gai-zerrenda honako hau izango da:

Opor-plana.

Arlo Zibileko Ataleko magistratuek Arlo Zibileko Atalerako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizunari buruzko proposamena aurkeztu eta bidaltzea.

Instrukzioko Atalaren banatzeko arauak, zehazki Guardiako Auzitegiaren 2 eta 10. zk.ko arauak.

Exhortoen erregistroa eta testuingurua eta Guardiako Auzitegia.

Aurreikusitako orduan, Epaileen Batzarra hasten da, eduki honekin:

1- OPOR-PLANA: (...)

2.- ARLO ZIBILEKO ATALEKO MAGISTRATUEK ARLO ZIBILERA KO FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUNARI BURUZKO PROPOSAMENA AURKEZTU ETA BIDALTZEA.

Eranskina: Arlo Zibileko Atalaren laguntza-neurria jasotzen duen dokumentua.

3- INSTRUKZIOKO ATALAREN BANATZEKO ARAUAK, ZEHAZKI GUARDIAKO AUZITEGIAREN 2 ETA 10 ARAUAK.

** 2. zk.ko arauari dagokionez, ez da inolako aldaketarik adostu, nabarmentzen baita ez dagoela eztabaidarik edo gatazkarik eraginpeko magistratuen artean (Instrukzioa eta Indarkeria).*

** 10. zk.ko banaketa-arauaren idazketa argitzea proposatzen da, eta, aurrerantzean, honela geratuko da idatzita:*

10. Guardiako aldian izapidetu daitezkeen kautela-neurriak edo babes-agindu urgenteak, nahiz eta geroago igorriko zaien banaketa-arauen arabera auzigaiaz arduratu behar duen epaitegiari edo Emakumeen aurkako Indarkeriaren Auzitegiari, bere eskumeneko gaietan.

Erregistro eta Banaketa Zerbitzua babes-aginduen eskaera batez ohartzen denean, atestatua eta/edo dagokion eskaera sartu den egunean guardian dagoen Instrukzioko Ataleko Plazara bidaliko da, Guardiako aldia amaitu den ala ez kontuan hartu gabe.

Auzitegian eskura aurkeztutako eta ondoren erregistratutako salaketan kasuan, sarrera-zigiluaren data hartuko da kontuan.

4- EXHORTOEN ERREGISTRO ETA TESTUINGURUA ETA GUARDIAKO AUZITEGIA.

Guardiako eginkizunak betetzen dituzten erregistroko langileek, Guardian dauden Auzitegiaren testuingurutik, errekesitoriatuen exhortoak erregistratu ahal izatea erabaki da.

ESKAERAK ETA GALDERAK:

JALek apud acta eta JALEAS-en egindako oharpenaren berri izango dute aurrerantzean.

Sarrerei buruzko banaketa-arauaren aldaketari buruz eztabaidatu da, eta hura aldatzea ala ez aldatzea erabakitzea geroratu da, horri buruzko berariazko araudia berrikusteko».

Gai-zerrendako lehenengo puntuari dagokionez (Opor-Plana), Salak erabaki du 2026-05-29rako aurreikusitako Osoko Bilkurara bidaltzea haren onarpenaren aldarrikapena.

Gai-zerrendako bigarren puntuari dagokionez (Arlo Zibileko Ataleko magistratuek funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizunaren proposamena aurkezte eta bidaltzea Arlo Zibileko Atalerako), Salak erabaki du 2026-05-29rako aurreikusitako Osoko Bilkurara jotzea bere onarpenerako.

Gai-zerrendako hirugarren puntuari dagokionez (Instrukzioko Atalaren banaketa-arauei buruzkoa, zehazki, Guardiako Auzitegiaren 2. eta 10. arauari buruzkoa), Salak honako hau erabaki du:

- Batzarrak 2. Araua ez aldatzeko hartutako erabakiaren berri izatea.

- 10. Araua aldatzeko proposamena onartzea eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidaltzea, eta jarduketa judizialen alderdi osagarriei buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren artikuluan 159.2 artikuluan eta Auzitegiaren Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduko 12.6. artikuluan aurreikusitako moduan zabaltzea.

Barakaldoko Barruti Judizialeko Auzialdi Auzitegiko presidente jaunari eskatzen zaio arau bateratuak dokumentu bakar batean bidaltzeko, Gardentasunaren Atarian behar bezala argitaratzeko.

Gai-zerrendako laugarren puntuari dagokionez (exhortoen erregistroa eta haien testuingurua, eta guardiako auzitegia), Salak hartutako erabakiaren berri izan du.

Eskaera eta galderei dagokienez, Sala jakitun geratu da.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritik, Akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari bidaltzea erabaki da, jakinaren gainean egon dadin eta legezkotasuna kontrola dezan.

1.5. ZERBITZU-EGINKIZUNAREN PROPOSAMENA, FUNTZIO-ALDAKETAREKIN, GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO BIGARREN ATALA OSATZEKO

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidente andreak egindako eskaeraren berri eman zaio Salari, aipatu auzitegiko Bigarren Atalean hutsik dagoen lanpostu bat betetzeari buruzkoa. Honela dio hitzez hitz:

"GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO PRESIDENTE ANDREAREN TXOSTENA, GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO BIGARREN ATALA OSATZEKO FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUNEN ESKAERARI BURUZKOA

AURREKARIAK:

Lehenengoa.- 2026ko maiatzaren 14an, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Presidentetza honetan jaso da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrak hartutako erabakiaren ziurtagiria, zeinaren bidez onartzen baita Alfredo Valdés-Bango Soler jaunari esleitzea funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna, Auzitegi Goreneko Kabinete Teknikoan aparteko errefortzuko letradu gisa jarduteko, letradu koordinatzailearen ordainsariarekin, Arlo Zibilaren erabaki-fasean laguntzeko.

Bigarrena.- Aurreikusten da, beraz, magistratu hori bere destino berrian sartuko dela aurtengo maiatzaren 25eko astean, eta horrek Bigarren Atal horretan lanpostu huts bat sortuko luke, iraupen luzekoa ziurrenik, etorkizunean Auzitegi Gorenean zerbitzu-eginkizun hori berrituko balitz.

GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO BIGARREN ATALAREN EGUNGO EGOERA:

Probintzia-auzitegi honetako Bigarren Atala da, Auzitegiaren barruan, gai zibilez, merkataritaz eta familiaz arduratzen den bakarra, eta bost magistratuz eta errefortzu batez osatutako plantilla organikoa du. Azken hau Atala aurtengo urtarrilaren 9tik ari da osatzen.

Bost magistratuetatik, bi merkataritza-arloan espezializatutako magistratuak dira, eta horietako bat, Valdés-Bango Soler jauna da orain Auzitegi Gorenean zerbitzu eginkizuna duen magistratua.

Gaur egun, magistratu hori zerbitzu-eginkizunetan ateratzeaz gain, Domeño andrea, Atal honetako presidente magistratu andrea, bajaran dago gaixotasunagatik, eta beste lanpostu huts bat

sortu da, Edorta Echarandio magistratuak Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Laugarren Atalera lehiatu ondoren.

Hau da, une honetan, zerbitzu-eginkizuna duenaren irteera egiaztatu ondoren, hiru magistratu titularrek (horietako bat errefortzu-eginkizunetan) eta ordeko bi magistratuk (Moreno andrea eta Garay andrea) osatzen dute Atala.

Gainera, Atal horrek gainditu egiten du auzigaien % 130eko sarrera-modulua eta % 150 inguruan kokatzen da. Hainbestearaino, non, planta judiziala handitzeko Errege Dekretuaren zirriborroak atal horretarako seigarren plaza bat sortzea aurreikusten baitu.

PROPOSAMENA:

BJLOren 216 bis artikuluan eta harekin bat datozenetan jasotako erregulazioaren arabera, funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizun bat eskatzen dut, Probintzia Auzitegiko Bigarren Atal honetan Alfredo Valdés- Bango Soler jaunari esleitutako lanpostua betetzeko, gutxienez sei hilabetez edo titularra bere lanpostura itzuli arte».

Salak, aurreko eskaeran deskribatutako Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Bigarren Atalaren egoera kontuan hartuta, bere egiten du Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidente andrearen proposamena, eta erabaki du eskatutako **integrazio-neurria proposatzea**, h.d. funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizun bat, zeinaren lan-karga, lanpostu huts funtzional baten ordezpenez, Atal bereko magistratu batena izango baita.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari adierazitako integrazio-neurria proposatzeko, FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUN BAT ESKAINTZEA ERABAKI DA, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Bigarren Atalerako, honako oinarri hauen arabera:

Lehenengoa. – Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Bigarren Atala **integratzeko** eskaintzen den neurria definitzea, Auzitegi Goreneko Kabinete Teknikorako zerbitzu-eginkizuna Atal horretako magistratuetako baten alde gauzatu ondoren.

Funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizun bat, sei hilabeterako, luzatzeko aukerarekin, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Bigarren Atalerako.

Bigarrena. – Jarduketa-plana.

Zerbitzu eginkizunaren jabeak Ataleko magistratu bat gehiagok bezala egin beharko du lan, eta auzigaiak gainerako kideen kopuru berean banatu beharko zaizkio. Gainerakoen parte-hartze bera izango du eztabaidan eta erabakiak hartzerakoan, bai eta garai horretan egon daitezkeen ikustaldietan ere.

Hirugarrena. – Neurriaren iraupena.

Errefortzu-neurriaren hasierako iraupena 6 hilabetekoa izango da. Epe hori igarotakoan, eta emaitza ikusita, denbora-epe berdinetan luzatzea erabaki ahal izango da, gehienez ere 2 urtez. Egun horretatik aurrera, laguntza edo errefortzua behar izanez gero, neurriaren eskaintza publikoa egin beharko da.

Laugarrena. – Egokitasunari buruzko lehentasun-irizpideak.

1. Eskatzaile bat baino gehiago egonez gero, Gobernu Salari dagokio egokien deritzona lehenestea, honako inguruabar hauek baloratuz:

a) Indartu beharreko epaitegia edo auzitegia sartuta dagoen jurisdikzio-ordena berekoa izatea Epaile edo Magistratu eskatzailea. Lehentasunezko merezimendu gisa baloratuko da espezialitatea egiaztatzea, eta, halakorik ezean, jurisdikzioan zortzi urtez egon izana deialdi honen aurreko hamabi urteetan, BJLOren 330.2 artikulua aurreikusitakoarekin bat.

b) Eskatzailearen destinoaren lekua eta distantzia.

c) Titularra den organoaren egoera.

d) Zerbitzu-eginkizuna emango den Autonomia-erkidegoko berezko zuzenbidea edo hizkuntza eta berezko zuzenbide substantiboa ezagutzea.

Aurreko irizpideen balorazioa batera egingo da, eta azalpenerako jarraitutako hurrenkerak ez du lehentasunik emango batzuen eta besteen artean.

2. Aurreko inguruabarren baterako balorazioak ez badakar eskatzaileen arteko desberdintasun nabarmenik, beste inguruabar batzuk baloratu ahal izango dira, hala nola antzinatasun profesionala, neurriaren xede den organoaren izaera bereko edo antzeko izaerako organoetan jardutea, organoaren berezko gaiei edo organoaren egoerarako garrantzitsuenak diren gaiei buruzko prestakuntza espezifikoak, argitalpenak eta epaile magistratu laguntzaileak aztertuko dituen gai eta gaiekin zerikusia duten bestelako merezimendu profesionalak. Familia-bizitza uztartzeari buruzko inguruabarrak ere kontuan hartu ahal izango dira.

Irizpide horien balorazioa ere batera egingo da, eta azalpenerako jarraitutako hurrenkerak ez du lehentasunik emango batzuen eta besteen artean.

Bosgarrena. – Eskabideak formalizatzea: modua, tokia eta epea.

Interesa duten epaile eta magistratuek gobernu-kudeaketako aplikazioaren bidez egin beharko dute eskaera.

Eskabideak aurkezteko epea **2026ko ekainaren 2an** amaituko da.

Seigarrena. – Deialdiaren publizitatea.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 216 bis 3.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrek 2007ko azaroaren 13an hartutako 69.2 erabakia betez, argitara bedi eskaintza hau, eta horren kopia bidali Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, bere web orriko epaile eta magistratuen extranetean sar dadin, Batzorde Iraunkorraren 2007ko azaroaren 29ko 30. erabakian aurreikusitako moduan.

Jakinaraz bekio erabaki hau Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidente andreari.

1.6. BJLOren 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT ERABAKIA BERRESTEA, AUZITEGI NAZIONALEKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALARAKO ZERBITZU-EGINKIZUNA BERRITZEARI BURUZKOA, FUNTZIO ALDAKETEKIN.

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2026ko maiatzaren 7an hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presazko arrazoiei dagokienez, honela dio hitzez hitz:

«Kontuan hartu da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurreko komunikazioa; horren bidez, funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizunari buruzko txostena eskatzen da, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salarako, XXXX. XXX. XX. XXXX XXXX XXXXren alde dena, destinoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan duen magistratuak. Erregistra bedi.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluen arabera, presazko arrazoiei dagokienez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 216. eta 350. artikuluen arabera, honako txosten hau egitea erabaki da:

Gaur egun, XXXX. XXX. XX. XXXX XXXX XXXX-k funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizun bat du, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salan. Bere absentzia borondatezko ordezipenen araubidearen bidez bete da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren Batzordeak onartu baitzuen 2025eko azaroaren 21eko bilkuran.

Hori dela eta, gaur egun dagoen estaldura-araubideari eusten bazaio, eta Salaren funtzionamenduan eraginik ez badago, Presidentetza hau ez dago eskatutako zerbitzu-eginkizuna berritzearen aurka.

Presidente jaunak erabaki, agindu eta sinatu du. Nik, Gobernu-idazkariak, horren fede ematen dut. "

1.7. AITATASUN- ETA EDOSKITZE-BAIMENAK METATZEAGATIK ETENDAKO OPORRAK HARTZEARI BURUZKO KONTSULTA, ETA 1. ETA 2. MAILAKO FAMILIAKO KONTSULTA ETA PROBA MEDIKOAGATIKO BAIMENARI BURUZKOA

Gasteizko Auzialdi Auzitegiko presidenteak, 2026-05.18an hartutako erabakiaren berri eman zaio Salari. Honako hau dio, hitzez hitz:

«Egin bekio kontsulta Gobernu Salari honako puntu hauei buruz:

1.- Oporrak eskatzeko eta hartzeko araubidea, aitatasun- eta edoskitze-baimenak metatzeagatik oporrak etenda geratzen direnean, noiz hartu behar diren eta alde zehatzak eta hartu gabeko norberaren aukerako baimenak finkatzeko aukera zein diren argitzeko.

2.- 1. mailako edo 2. mailako senidea (lanpostua dagoen herri berean edo beste batean) kontsulta eta proba medikoa egiteagatik baimena hartzeko eskubidea duen egunei buruz "

- Planteatutako lehen kontsultari dagokionez, Salak, eztabaidatu ondoren, uste du aitatasun- eta edoskitze-baimenak metatzeagatik etendako oporrak aipatutako metaketa hori amaitzen denean har daitezkeela, betiere data zehatzak edo baimenak baliatzeko aldiak aukeratzeko garaian dauden estaldura-araubidearen arabera. Horri dagokionez, adierazi behar da kanpoko ordezeko epaileari deitzeko kasuetako bat dela urte bakoitzerako oporrak hartzeko diseinatutako datetan hartu ezin izana. 2027ko martxoaren 31 baino lehen hartu ezin izan diren aukera libreko egunei dagokienez, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 373.4 artikuluan lege aurreikusitako baldintzetan, Batzorde

Iraunkorrak 2024ko urtarrilaren 11n erabakitakora jotzen du Salak (akta honen eranskin gisa erantsi da).

- Salak egindako bigarren kontsultari dagokionez, uste da bi gai desberdin biltzen dituela.

Lehenengo gaia da ea baimen hori BJLOren 373. artikulua eskaintako araubabesean sartzen den. Horri dagokionez, BJLOren 373.7. artikuluan itxiera gisa jarduten duen berme-klausularen arabera, lehen edo bigarren mailako senide baten kontsulta eta proba medikoagatiko baimena eman daiteke, baldin eta baimena Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan aitortutako baimenetan sar badaiteke.

Bigarren gaia arestian aipatutako baimena ematetik estaldurari begirako erator daitekeen ordezen-araubidea zehaztera mugatzen da. Salaren ustez, estaldura-sistema gisa egin daitekeen kanpo-ordezenaren eskaera F arauan soilik oinarritu daiteke, alegia, ordezo epaileak deitzeko irizpideetan jasotako salbuespen zehaztugabeari buruzkoan (irizpideok Gobernu Sala honek onartu zituen 2025eko abenduaren 19ko bilkuran). Deia egiten duen Auzialdi Auzitegiko presidenteari dagokio salbuespen-arau horri edukia ematen dioten oinarriak justifikatzea.

1.8. IRUNGO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO ETA INSTRUKZIOKO ATALAREN INGURUAN EBAZTEKE DAUDEN EBAZPENAK EMATEKO PLANA ETA EGUTEGIA. 5. ZK.KO PLAZA.

Salari jakinarazi zaio, 2026-04-17ko Osoko Bilkuraren 6.2 Erabakian xedatutakoarekin bat etorriz, Irungo Auzialdi Auzitegiko XXXX XXXX XXXX XXXXko magistratu titular XX XXXX XXXX XXXX-k Plan eta Egutegi bat aurkeztu duela, une honetatik 2026-06-30era arte ebazteke dauden ebazpenak emateko, horiek emateko aurreikusitako programazioarekin.

Sala jakitun geratu da

1.9. BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAK LANALDI-MURRIZKETAREN LUZAPENARI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIAREN BERRI EMATEA.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko langile judizialek bidalitako jakinarazpenaren berri eman zaio Salari. Bertan, jakinarazten da Batzorde Iraunkorrak 2026-05-05eko bileran erabaki duela aldez aurretik baimendutako lanaldi-murrizketaren luzapena ematea XXXX XXXX XXXX XXXXeko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko magistratu titular andreari.

1.10. GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO HIRUGARREN ATALEKO ZERBITZU-EGINKIZUNEI BURUZKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, FUNTZIO-ALDAKETAREKIN.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidente andreak egindako txostenaren berri eman zaio Salari, María José Rua Portu andrearen, Donostiako Auzialdi Auzitegiko Instrukzioko Ataleko 2. zk.ko Plazaren aurreko magistratu eta, gaur egun, 2026ko maiatzaren 5etik, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Lehen Ataleko magistratu titular denaren balorazioari buruzkoa, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko hirugarren Atalean eginkizunak ordeztuta zerbitzu-eginkizunaren neurriaren helburuak betetzean, 2026ko maiatzaren 5ean kargua utzi arte.

Salak jakintzat eta aitortzen du zerbitzu-eginkizuna duen magistratuak jarduera-planean ezarritako helburuak betetzen egindako lana.

1.11. BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA, AUZITEGI GORENEKO ARLO ZIBILEKO KABINETE TEKNIKOAN ERREFORTZU BEREZIKO LETRADU GISA JARDUTEKO ZERBITZU-EGINKIZUNARI BURUZ ETA EGINKIZUNAK ORDEZTEARI BURUZKOA.

Salari BJKNren Batzorde Iraunkorrek 2026ko maiatzaren 12ko bileran hartutako erabakiaren berri eman zaio. Erabaki horren bidez, Auzitegi Goreneko Kabinete Teknikoan aparteko errefortzuko letradu gisa jarduteko neurri bat erabaki da, Arlo Zibilaren erabaki-fase sortu berriari laguntzeko. Fase horretan, zerbitzu-eginkizun bat egongo da, funtzio-aldaketarekin, Alfredo Valdés-Bango Soler Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko 2. Atalaren titularren alde. Neurriaren iraupena lanean hasten denetik 2026ko ekainaren 30era artekoa izango da.

1.12. BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN ERABAKIAREN BERRI EMATEA, IRUNGO AUZIALDI AUZITEGIKO ARLO ZIBILEKO 2. ZK. KO PLAZAREN ETA INSTRUKZIOKO ATALEKO PLAZAREN BANAKETA SALBUESTEARI BURUZKOA.

BJKNren Batzorde Iraunkorrek 2026ko maiatzaren 12ko bileran hartutako erabakiaren berri eman zaio Salari. Erabaki horren arabera, Irungo Auzialdi Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko Ataleko 2. zk.ko plazarako banaketaren salbuespen partziala onartzen da. Haren titularra Cristina Mere Bermejo magistratua da. Banaketa bidez egokitu dakizkiokeen Europako prozedura monitorioen, kanbio-epaiketen eta pertsona fisikoen lehiaketen % 100 eta bere plazari banatu beharko litzaizkiokeen monitorioen % 7 dira, auzitegi horretako presidentea den bitartean.

2.-Ordezko magistratuei eta ordezkoko epaileei buruzkoa

2.1. IZASKUN NAZARA LACAMBRA ANDREAREN ALDEKO DEIA BERRESTEA.

Salak aho batez erabaki du Bizkaiko Probintzia Auzitegiko presidente andreak egindako deia berrestea, Izaskun Nazara Lacambra andreak ordezkotako magistratu-kargua bete dezan Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Seigarren Atalean, titularrari lizentzia eman baitzitzaion 2026ko maiatzaren 26an ikastarora joateko. Dei hori Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako kanpoko ordezkotako epaileak deitzeko irizpideak berrikusteko 2025eko abenduaren 19ko erabakian ezarritakoaren arabera egiten da.

Deia berrestearen arrazoia da Gobernu Sala honek ezarritako irizpideen arabera, kanpo-ordezkapenera jo beharra dutenen artean dagoela.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.

2.2. ISABEL GERMAN MANCEBO ANDREARI EGINDAKO DEIA BERRESTEA (1)

Salak aho batez erabaki du Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko presidente andreak egindako deia berrestea, María Isabel Germán Mancebo andreak ordezkotako magistratu-kargua bete dezan Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Hirugarren Atalean, 2026ko maiatzaren 25etik 28ra, titularrak AJ-00120/2026 jardueran parte hartzeagatik. Dei hori Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako kanpoko ordezkotako epaileak deitzeko irizpideak berrikusteko 2025eko abenduaren 19ko erabakian ezarritakoaren arabera egiten da.

Deia berrestearen arrazoia da Gobernu Sala honek ezarritako irizpideen arabera, kanpo-ordezkapenera jo behar dutenen artean dagoela.

Erabaki honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe, modu eta arrazoiengatik.

2.3. ISABEL GERMAN MANCEBO ANDREARI EGINDAKO DEIA BERRESTEA (2)

